



OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Lurralde lauan kokatutako herria da Zarautz eta ordeka horretan dago urbanizatutako azaleraren zatirik handiena: bizitegi-auzoak, ekipamenduak, zerbitzuak eta hornidurak. Aldaparik eza da, beraz, Zarautzen ezaugarria.

Ezaugarri horri esker, batetik, eta herri barruan egin beharreko distantziak bi kilometroko zirkuluan daudelako, bestetik, XX. mendearen hasieratik, izugarri areagotu da bizikletaren erabilera herritarren artean, herrian batetik bestera joateko edo paseatzeko. Aipatutako bi ezaugarri horientatik, hortaz, Zarauzko herritarrek herri barruan egin behar izaten dituzten joan-etorrien portzentaje handi bat (%72) motorrik gabeko garraio bidez egiten da.

Aldi berean, ordea, ibilgailu motordunen kopuruak ere nabarmen egin du gora, eta kotxe nahiz motozikleten areagotze horrek espazio gehiago eskatzeaz gain, presioa eragiten du oinezkoen eta ziklisten gain.

Patinetan, patinetetan eta gisa horretako euskarri gurpildunetan oinarritutako aisia modu berriek ere eskatu egiten dute beren espazioa izatea, herrian barrena zirkulatzeke.

Horrez gain, ezintasun fisikoak dituzten pertsonen erabilitako gurpil-aulki motordun gehiago dago errepideetan nahiz espaloietan zirkulatzen.

Alde Zaharreko kale batzuk oso estuak direnez, zaila izaten da ibilgailuak eta oinezkoak aldi berean egotea, eta horregatik beharrezkotzat jotzen da hirigune, pasealeku, parke eta lorategien barruan era guztietako ibilgailuen erabilera mugatzea eta oinezkoen lehentasuna ematea, kontuan hartuta, gainera, oinez egin beharreko desplazamenduak 10 minututan egiten direla. Horrez gain, ez da ahaztu behar aipatutako eremu horretan merkataritzako establezimendu asko dagoela, eta beren jarduerarako beharrezko diren zama-lanak egingo badituzte, behar bezalako tratamendua behar dutela.

Zarauzko Udala lehenetako izan zen Agenda 21eko prozesuari eta Aalborgeko helburuei eusten. Helburu horien artean dago garraio publikoko erabiltzaile kopurua eta oinezko desplazamenduak eta bizikletaz egiten direnak igotzea, herriko mugikortasuna iraunkorragoa izan dadin. Ildo horretan Zarauzko Udal Mugikortasun Plan iraunkorra ere onartu zen, eta bertan helburu modura jasota dago garraio alternatiboak bultzatzea (oinezko erabilera, bizikleta, eta garraio publikoko zerbitzuak). Horregatik guztiagatik, ordenantza honen xede nagusia eta justifikazioa Zarauzko mugikortasun ereduaren aldaketa bultzatzea da, helburu modura jarrita



ZARAUZKO UDALA

garraio pribatu motordunaren erabilera murriztea, eta indartu beharreko mugikortasun baliabideak oinezkoa, bizikleta bidezkoa eta garraio publikoa izatea.

Helburu nagusi horien baitan, eta bizikletaren erabilera arautzeari dagokionez, Amsterdameko Deklarazioa hartzen da erreferentetzat. Deklarazio hori munduko beste administrazio askorekin batera sinatu zuen Eusko Jaurlaritzak ere, eta bertan biztanleriako sektore guztiei, baita haurrei ere, bizikletaz ibiltzeko eskubidea aitortzen zaie, eta dei egiten da bizikletaren erabilera erakargarriagoa izan dadin baldintzak bete daitezen.

Aipatutako arrazoiengatik, batetik, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak, 2005/7/19an bateratutako testu artikulatuak, Udalari aitortzen dizkion eskumenekin bat etorrira, bestetik, eta garraiobide ezberdinak eta oinezkoak, biak batera, modu egokian ibiltzeko aukera eskaintzeko asmoz, azkenik, beharrezkotzat jotzen da ibilgailu eta patin mota ezberdin horien erabilera arautuko duen ordenantza bat izatea, gune publikoetan, plazetan, pasealekuetan, kaleetan, bidegorrietan eta abarretan erabiltzen direnean ez diezaioten kalterik eragin oinezkoari, hau da, beharrezkoa da ordenantza bat oinezkoa babestuko duena, motorrik gabeko garraiobideen erabilera eta garraio publikoa lehenetsiko dituen, kotxea zentzuz erabiltzea bultzatuko duena eta, oro har, herritarren bizitza kalitatearen hobekuntza ekarriko duena, bide batez, kutsadura atmosferikoa eta akustikoa gutxituz.

Honako ordenantza hau banatuta dago 3 titulu, 51 artikulua, lau xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat, azken xedapen bat eta 3 eranskinetan.

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA . APLIKAZIO EREMUA ETA KONTZEPTUAK

1. Artikulua. Helburua

Ordenantza honen helburua da, batetik, Zarauzko herri barruko bide, plaza, gune publiko eta pasealekuetan, pertsona eta ibilgailuen trafikoari buruzko ordenantzaren zenbait alderdi arautzea eta, bestetik, trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren alorrean indarrean dagoen araubidean ezarrita dagoena udalerrri honetarako zehaztea, honako araudi honek berariaz arautu ez dituen gaietan aplikatu ahal izateko.

2. Artikulua. Aplikazio-eremua

Ordenantza honetako aginduak udalerrri osoan aplikatuko dira eta zirkulatzeko bide eta gune guztietako jabe eta erabiltzaileei eragingo die, jabetza publikokoak nahiz erabilera publikoko jabetza pribatukoak izan.



Ordenantza honek araututako bide eta guneak erabiltzen dituzten pertsonen derrigorrez bete beharko dituzte arauzko zirkulazio seinaleak.

3. Artikulua. Erabilitako kontzeptuak

Ordenantza honetan erabilitako kontzeptuak testu honen I. eranskinean daude definituta.

4. Artikulua. Organo eskudunak

Udalbatzari dagokio oinezkoentzat lehenetsitako zonak zein izango diren zehaztea, nahiz eta Alkate Batzarburuak ere ahalmena izango duen, aipatutako zona horien muga aldatu, zabaldu edo murrizteko, une jakin batzuetan, eta Udalbatzari alde aurretik jakinarazi ondoren. Udalbatzari dagokio, halaber, ordenantza honetan jasotako aurreikuspenak aldatzea, Alkatetzari dagozkion eskuduntzakoak izan ezik.

Alkatetzari dagokio edo, Alkatetzak eskuordetza emanaz gero Tokiko Gobernu Batzarrari edo Zinegotzi Ordezkaritari, aurreikusitako ordutegiak aldatzea, aldi baterako sarbide mugatuko zonak edo oinezkoenak zein izango diren erabakitzea, zehapen-espeditenteak ebaztea eta larrialdietan beharrezko neurriak hartzea.

II. KAPITULUA. BIDEEN SEINALEZTAPENA

5. Artikulua

Udal organo eskudunak aginduko du, une jakin bakoitzean, dagokion seinaleztapen bertikala nahiz horizontala jarri, kendu edo ordezkatzeko.

Norbanakoek ezin izango dituzte inoiz ere zirkulazio seinaleak jarri, alde aurretik organo eskudunaren baimenik izan gabe.

Oinezkoen zonetako sarreretan, zirkulazio mugatukoetan edo ordutegi mugatuko aparkalekuetako sarreretan dauden seinaleak, oro har, leku horien perimetro osorako izango dira.

Debekatuta dago seinaleen edukia aldatzea. Debekatuta dago, halaber, seinaleen aldamenen edo gainean jartzea, erabiltzailearengan nahaste-borrastea eragin, seinaleak behar bezala ez ikusteko edo ulertzeko moduan utzi, erabiltzaileok itsutu edo horien arreta galaraz ditzaketan plakak, kartelak, graffitiak, iragarkiak, markesinak edo bestelako objektuak.



ZARAUZKO UDALA

Erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna areagotu ditzaketen gailuak eta/edo seinaleak jarri ahal izango dira, bai oinezkoak ibiltzen diren kaleetan, bai trafiko mistoa dagoenetan, eta baita bizikleta-bidea duten kaleetan ere.

Oinezkoen pasaguneetako seinaleztapen horizontala egiteko, pintura ez labaingarria erabiliko da.

Oinezkoen pasabideak galtzada baino gorago eraiki ahal izango dira, trafikoaren eta oinezkoen segurtasunerako beharrezkoa bada, eta betiere, irisgarritasun baldintza guztiak betez.

Ibilgailuei abiadura motelarazteko ere, balaztatze-bandak jarri ahalko dira galtzadan, behar bezala seinaleztatuta.

III. KAPITULUA. ZIRKULAZIO NEURRI EZOHIKOAK

6. Artikulua

Larrialdietan, osasun-laguntza emateko beharrezko diren ibilgailuek zirkulatzeko baimena izango dute, esate baterako, suhiltzaileek edo babes zibileko ibilgailuek, baina betiere, oinezkoen zonetarako, bizikleta-bide nahiz erreserbatutako alderdietarako Udaltzaingoak edo agintaritza eskudunak ezartzen duenarekin bat etorruta.

7. Artikulua

Organo eskudunak trafikoaren nahiz oinezkoen zirkulazioaren antolamendua aldi baterako aldatzeko eskumena izango du, trafiko eta zirkulazio kontuek hala eskatzen dutenean, larrialdietan, segurtasunerako eta ordena publikorako beharrezko jotzen denean, eta kirol-jarduerak, kulturalak nahiz bestelakoak egiteko beharrezko denean ere bai. Horrez gain, eta hala badagokio, eskumena izango du pertsonen eta ibilgailuen segurtasuna bermatzeko, garraio publikoa lehenesteko eta zirkulazioa arintzeko beharrezko diren neurri guztiak hartzeko, esate baterako, seinaleak kenduz edo jarritz, murrizketak eta mugaketak ezarriz, eta horiek guztiak derrigorrez bete beharrekoak izango dira.

Ezohiko neurriak jarri behar diren zona eta bideetan, ahal dela, seinaleztapenak aldeztatik jarri beharko dira, aldaketa horien zergatia eta iraupena zenbatekoa izango den azalduz.

Aparkalekuetatik ibilgailuak kendu behar direnetan, ahalegina egingo da jabeen kartzeko abisua ematen. Kentzen ez badituzte, Udaltzaingoak kendu edo lekuz mugituko ditu. Horrelakoetan, jasota geratu beharko dira emandako abisuak edo ematen egindako saiakerak, horien arabera, garabiari dagokion tasa kobratzeko edo ez kobratzeko.

8. Artikulua

Kasu larri-larrietan, eragindako zonak seinaleztatu gabe uzterik egongo da; ezohiko neurri horiek, ordea, beharrezko den denboran baino ez dira mantenduko.

IV. KAPITULUA.OINEZKOENTZAT LEHENETSITAKO ZONAK

9. Artikulua

Oinezkoentzat lehenetsitako zonatzat joko dira Ordenantza honen II. eranskinean jasotako plazak, parkeak eta kaleak; hala eta guztiz ere, ebazpen bidez aldaketak egin eta zona berriak ere sortu eta izendatu ahalko dira.

Salbuespenezko kasuetan, edo zenbait kasu jakinetan, eta dagokion departamentuak hala eskatuta, udal organo eskudunak ezarri ahal izango ditu, aldi baterako, oinezkoentzat lehenetsitako zonak, ibilgailuen zirkulazioa eta aparkamendua erabat debekatuz edo zerbait mugatuz, eta eragindako alderdi horretan zirkulazioa zein baldintzapetan egingo den zehaztuz.

10. Artikulua

Oinezkoentzat lehenetsitako zonak direla seinaleztatzeko, sarrera eta irteeretan jarri beharko dira seinaleak. Horrez gain, ibilgailuei sarrera galarazteko edo kontrolatzeko ere elementu mugikorrak jarri ahalko dira.

11. Artikulua

Oinezkoentzat lehenetsitako zonetan zirkulatzeko edo aparkatzeko debekua iraunkorra izan daiteke, zenbaitetan eguneko ordu jakin batzuetarako jarri ahalko da eta, beste zenbaitetan, egun jakin batzuetarako. Debeku hori, gainera, mugatutako eremuko bide guztietarako nahiz batzuetarako bakarrik izan ahalko da. Ibilgailuaren tamainaren eta motaren arabera ere ezarri ahalko da debekua.

12. Artikulua

Oinezkoentzat lehenetsitako zonetan zirkulatzeko ezartzen diren mugek ez diete eragingo ondorengo ibilgailuei:

- a) Entitate edo Erakunde Publikoetako ibilgailu ofizialei, zerbitzu publikoetara atxikitakoei, larrialdietan zerbitzua ematen dutenei, Segurtasun Indar eta Kidegoetakoei, osasun-laguntzarako direnei, auto-taxiei, baina betiere, zerbitzu-egintzan badaude.



ZARAUZKO UDALA

- b) Zona horretan bizi diren edo arreta jasotzen duten gaixoak daramatzaten ibilgailuei.
- c) Baimendutako garaje edo aparkalekuetan sartu edo irteten diren ibilgailuei.
- d) Mugikortasun urriko pertsonak gidatutako ibilgailuei, mugikortasun urriko pertsonak daramatzatenei, zona horretan sartzen edo bertatik irteten daudenean. Horrelakoetan, aldez aurretik Udaltzaingoari hala eskatuta, oinezkoentzat lehenetsitako zona horretan sartzeko egon den arrazoiari erantzuteko behar-beharrezkoa den denboran, ez gehiago, utziko zaio ibilgailuari geldit egoten.
- e) Udalak berariaz baimendutako ibilgailuei.
- f) Salbuespen gisa, eta aldez aurretik Udaltzaingoaren aldeko txostena izanda, beste zenbait kasutan ere baimena eman ahalko da, herriaren onurarako bada edo berezitasunen bat badauka.

13. Artikulua

Oinezkoentzat lehenetsitako zonetatik pasatzerakoan, aurreko artikuluan aipatutako ibilgailuek egokitu egin beharko dute beren abiadura oinezkoenera, eta gehienez ere 10 km/h abiaduran ibiliko dira.

14. Artikulua

Aipatutako zona horietatik patinetan eta bizikletetan ibiltzerik izango da, baina betiere, titulu honetako II. eta III. kapituluetan adierazitako baldintzak betez, hurrenez hurren. Horrelakoetan, bizikleta eta patinek lehentasuna izango dute gainerako ibilgailuekiko, ez, ordea, oinezkoekiko.

V. KAPITULUA. ALDE ZAHARREAN ZIRKULATZEKO ARAU BEREZIAK

15. Artikulua

Kapitulu honetan ezarritakoak arautuko du, berariaz, Alde Zaharreko kaleetako ibilgailuen zirkulazioa eta aparkamendua.

16. Artikulua

Herrikobarra, San Frantzisko, Zigordia, Santa Marina, Kiriki, Patxiku, Amezti, Bixkonde eta Bañeru kaleetan barrena, ordu-mugarik gabe ibili (sartu-zirkulatu) ahalko dira irakurketa automatikodun txartela, irekitzeko gailua, edota garajeetan sartu nahiz irteteko dagoen teknologiaren arabera, Udalak egokitzen jotako beste edozein sistema

duten ibilgailuak, baina betiere, nahitaezko baimena badute, Ordenantza honetan aurreikusitakoarekin bat etorrira.

17. Artikulua

Hona hemen oinezkoentzat lehenetsitako kale eta plazak:

Nagusia, Ipar, Santa Marina (Ipar arte) Azara, Trinitade, Orape, Olatarreta, Bixkonde, Itsasertza, Kiriki, Patxiku, Bañeru, Mariñel, Kulixka, Geltoki, Munoa, Belaunzaran, Torre Luzea, Musika plaza, Lege Zaharren Enparantza, Barren plaza (II. eranskinean dator planoan).

Trafiko mistoko oinezkoen kaleak dira, berriz, Zigordia (Salegitik), Ipar (Orapetik) Santa Marina (Iparretik), Herrikobarra eta San Frantzisko.

18. Artikulua

Trafiko mistoko oinezkoen kaleetan, zamalanetan dabilzan ibilgailuek bertan egoterik izango dute, zamak duen pisuagatik, bolumenagatik edo bestelako arrazoi batzuegatik pertsona bakar batek ezin dituenean garraiatu. Horrelakoetan, gehieneko abiadura 10 km/h izango da eta oinezkoen lehentasuna emanez eta kontuz ibili beharko dira.

Seinaleztatutako tokietan aparkatu beharko dute ibilgailuek.

Oinezkoentzat lehenetsitako kaleetan, banaketa egiteko ordutegia, lanegunetan, goizeko 8:00etatik 11:00k bitartekoa izango da.

Trafiko mistoko kaleetan, banaketa egiteko ordutegia Ordenantza honetako III. eranskinean ezarritakoaren arabera izango da.

Trafiko mistoko kaleetan, salbuespen gisa, arestian aipatutako orduetan ez beste batzuetan, baimendutako gehieneko pisua 3.500 kg baino txikiagoa duten ibilgailuak egon ahalko dira, zamalanak egiteko ezinbestekoa bada, eta merkantzia erabiltzean eta batetik bestera mugitzean zaratarik ateratzen ez badute. Esandakoa bete ezean, automatikoki kenduko dira aurretik emandako baimenak.

Era berean, trafiko mistoko kale horietarako baimen bereziak lortu ahalko dituzte 3.500 kg baino gehiagoko ibilgailuek, obrak egin behar dituztenean, edo herri onurarako bada.

Banaketa-ordutegitik kanpo, kale eta plazetara ez da sarbiderik izango, oinezkoen kale bilakatuko dira, eta eremu horretan sartzeko baimena izango duten bakarrak ezinduen gupil-aulki motordunak eta berariaz baimendutako ibilgailuak izango dira.



ZARAUZKO UDALA

Ziklomotoreek, motozikletek eta gainerako ibilgailu motordunek zirkulazioa mugatuta edukiko dute San Frantzisko eta Herrikobarra kaleetako sarrera eta irteeretara.

Bizikleta eta patinak galtzadatik edo horretarako prestatutako gunetatik, ibili beharko dira, nahitaezko seinaleztapenaren noranzkoan.

19. Artikulua

Oinezkoentzat diren kale eta plazetan ibilgailuei sartzen utziko zaie, bertan bizi diren herritarrek zamalan jakin batzuk egin behar dituztenean, baina betiere, aldezturik egin behar horren berri eman ondoren Udaltzaingori.

Era berean, zona horretan sartu ahalko dira, horretarako beharra behar bezala justifikatutakoan, eremu horren barruan dauden establezimenduetako ibilgailuak, mugikortasun urriko pertsonak daramatzatenak, baina betiere, dagokion Udal Zerbitzuek aldeko txostena eman ondoren.

Oinezkoen kale eta plazetako zamalanak lanegunetan egingo dira, goizeko 8:00etatik 11:00k bitartean, eta ordu horretatik aurrera trafikoarentzat itxita geratuko dira.

Ezarritako ordutegitik kanpo zamalanak egiteko baimena jasotzen denetan, lan horiek eskorga edo ibilgailu isilen bidez egin beharko dira.

Zona honetara sartzeko baimena ematen duen dokumentuan zehaztuta agertu beharko da ibilgailuak zein bidetatik barrena egingo duen ibilbidea, zein dimentsio duen eta zein den Baimendutako Gehienezko Pisua.

20. Artikulua

Kapitulu honetan aipatutako kale guztietan, oro har, ezin izango dira ibilgailuak aparkatu zamalanetarako erreserbatutako zonetan.

21. Artikulua

Trafiko mistoko kaleetan, ibilgailuen abiadura oinezkoenera egokitu behar da, eta beti izango du lehentasuna oinezkoak ibilgailuarekiko.

22. Artikulua

Oro har, kapitulu honetan ezarritako mugaketetara ez dira lotuta egongo garbiketa lanetan dabilzan ibilgailu ofizialak, polizienak, suhiltzaileenak, larrialdietakoak eta ezindu fisikoak garraiatzen dabilzanak.

VI. KAPITULUA. ITSASERTZEAN ZIRKULATZEKO ARAU BEREZIAK

23. Artikulua

Itsasertzean, hondar koloreko zatia eta arkupeak oinezkoen zonak dira erabat. Granitozko zatia jendea bertan jarrita egoteko eta aisiarako tokia denez, oinezkoentzat lehenetsitako zona da, eta bertatik ibil daitezkeen ibilgailu bakarrak larrialdietakoak, hondartzako zerbitzuak ematen dituztenak eta bertako establezimendu komertzialetan horniketa egiten dutenak dira; nolana ere, horiek guztiek, Udalaren Zerbitzu Teknikoek ezarritako baldintza zehatzak bete behar izango dituzte. Bizikletak, patinak eta antzekoak horretarako mugatutako zonetatik ibili beharko dira.

VII. KAPITULUA. SARRERAK KONTROLATZEKO SISTEMA

24. Artikulua.- Helburua

Kapitulu honen helburua da Zarauzko zenbait kaletarako sarbideak arautzea, horretarako baldintzak jarritz; izan ere, kaleon ezaugarriengatik oinezkoentzat lehenesteko moduko zonak dira, eta hala geratu ziren araututa, 2006ko azaroaren 2an, Alkatetzaren bando bidez.

25. Artikulua.- Aplikazio-eremua

Ondorengo kaleok osatzen dute: Herrikobarra, San Frantzisko, Zigordia, Santa Marina, Trinidad, Amezti, Iger eta Bañeruk.

Zona horretan beharrezko seinaleztapenak eta elementu mugikorak jarriko dira, eragindako zonara sartzea eta bertatik zirkulatzea galarazteko ibilgailuei.

26. Artikulua.- Kontrol-sistema

Egongo diren kontrol-sistemarako, irakurketa automatikodun txartela edo, dagoen teknologiaren arabera, Udalak egokitzat jotako beste edozein sistema emango zaie baimendutako ibilgailuei. Indarrean dagoen prezio publikoa ordaindu beharko da.

Oinezkoak eta ibilgailuak aldi berean dauden garaitan, baimendutako gehienezko abiadura 10 Km/h izango da.

27. Artikulua.- Baimendutako ibilgailuak.

Baimendutako ibilgailutzat hartuko dira, pertsona fisiko edo juridikoen jabetzakoak izanda, ondoren aipatutako taldeetako batean badaude eta udalak dagokion baimena ematen badie:



ZARAUZKO UDALA

- a) Seinaleztatutako eremuaren barruan garaje plazak jabetzan edo alokairuan hartuta dituztenak, betiere, pasabide-lizentzia indarrean badute. (Garaje plaza bakoitzeko, askora jota, hiru txartel edo irekitze-sistema emango dira, justifikatutako ibilgailuko bana).
- b) Ohiko hornitzaileak: zona horretan dauden ostalaritzako establezimenduetako, saltokietako edo etxe partikularretako horniketa egiteko, aldian-aldian, zamalanak egiten dituzten garraiolariak, horretarako egoki diren ibilgailuen bidez.
- c) Entitate edo Erakunde Publikoetako ibilgailu ofizialak eta zerbitzu publikoetara atxikitakoak, zerbitzua ematen ari diren bitartean.
- d) Larrialdietako zerbitzua ematen dutenak, Segurtasun Indar eta Kidegoetakoak, osasun-laguntzarako direnak, baina betiere, zerbitzu-egintzan badaude.
- e) Auto-taxirako udal lizentzia duten ibilgailuak, zerbitzu-egintzan badaude.

Salbuespen gisa, eta aldeztatik Udaltzaingoaren aldeko txostena izanda, beste zenbait kasutan ere baimena eman ahalko da, herriaren onurarako bada edo berezitasunen bat badauka. Salbuespen horien artean ditugu, besteak beste, aplikazio-eremuaren barruan bizi izan eta mugikortasun arazoak dituzten pertsona ezinduak daramatzaten ibilgailuak, betiere, erakunde eskudunak dagokion baimen berezia eman ondoren.

Baimenak aldi baterakoak izan daitezke, eta horrelakoetan zehaztu egin beharko da noiz arteko indarraldia izango duten.

28. Artikulua.- Ordutegiak

Sarbide-ordutegiaren araubide orokorra, lehen aipatutako baldintzak beteta, Ordenantza honen III. eranskinean jasotakoa da.

29. Artikulua.- Baimena eskatzea.

Dagokion baimena lortu ahal izateko, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da Udaletxean:

- a) Eskabidea, inprimaki ofizialean eta behar bezala beteta, eskabidea zein sarbidetarako egiten den adieraziz.
- b) Zona horretan kotxe-toki edo garaje plaza baten jabe/errentari izana egiaztatzen duen dokumentazioa, eskritura publiko edo kontratu ofizial bidez hurrenez hurren, 12.c) atalaren kasuan.



ZARAUZKO UDALA

- c) Prezio publikoa ordaindu izanaren egiaztagiria. Baimen-eskabide bakoitzeko ordainketa bat.
- d) IAT (Ibilgailuen azterketa teknikoa) egin izanaren ziurtagiriaren fotokopia, eta hala badagokio, egin beharrik ez daukala justifikatzen duena.

30. Artikulua.- Baimena baliogabetzea

Baimena baliogabetuta geratuko da bete beharreko baldintzak bete ezean. Baliogabetu egin beharko da, halaber, baimen hori eman zeneko arrazoiak desagertzen badira edo, baimen hori ukatuko luketen arrazoi berriak agertzen badira.

Aipatutako egoeretan, baimenaren titularrak ez du kalte-ordainik jasotzeko inongo eskubiderik izango.

Baimendutako ibilgailua ez den beste batek txartel magnetikoren bat edo antzeko beste zerbait erabiliz gero, edo txartela manipulatu egin duten zantzurik izanez gero, Udaltzaingoa ahaldunduta egongo da, kautelaz kentzeko edo baliogabetzeko txartela.

II. TITULUA.- OINEZKOAK ETA BIZIKLETAK

I. KAPITULUA. OINEZKOEN IRAGAITEA

31. Artikulua

Espaloi, pasealeku eta behar bezala seinaleztatutako oinezkoen zonetatik ibili beharko dira oinezkoak, eta galtzadak eta bizikleta-bideak seinaleztatutako pasabideetatik gurutzatu beharko dituzte.

II. KAPITULUA. PATINEKIN ETA MONOPATINEKIN IRAGAITEA

32. Artikulua

Motorrik gabeko patinak edo antzeko tresnak ezingo dira zirkulatzeko errietan sartu.

Espaloietatik ibili ahalko dira, espaloiak bi metrotik gorako zabalera badu. Oinezkoentzat lehenetsitako zonetatik eta bizikleta-bideetatik ere ibiltzerik izango dute, berariaz debekatuta tokietatik izan ezik. Beren ibilaldia oinezkoenera egokitu beharko dute beti, inolako enbarazurik eta arriskurik sortu gabe.



33. Artikulua

Monopatinek, patinek edo antzeko tresnek ezingo dute galtzadatik zirkulatu, berentzako gordetako zonak, bideak edo bide-zatiak ez badira behintzat. Bizikleta-bideetatik eta espaloietatik edo bizitegi-kaleetatik zirkulatu ahalko dute, betiere, behar bezala seinaleztatutako tokietatik eta pertsonen paso berera. Inoiz ere ezin izango dute beste ibilgailu batzuei lotuta tarraka zirkulatu.

Monopatinek, patinek edo antzeko tresnek ezingo dute galtzadatik zirkulatu, berentzako gordetako zonak, bideak edo bide-zatiak ez badira behintzat. Espaloietatik eta bizitegi-kaleetatik zirkulatu ahalko dute, betiere, behar bezala seinaleztatutako tokietatik eta pertsonen paso berera. Inoiz ere ezin izango dute beste ibilgailu batzuei lotuta tarraka zirkulatu.

III. KAPITULUA. BIZIKLETAK

34. Artikulua. Aparkamendua

Bizikletak aparkatzeko espezifikoki egokitutako lekuetan aparkatu beharko dira, horretarako prestatutako euskarrietan ondo lotuta. Halako tokirik egon ezean, edo toki guztiak beteta egonez gero, beste toki batzuetan aparkatu ahal izango dira, betiere enbarazurik egin gabe oinezkoen iragaiteari, ibilgailuen zirkulazioari, ezkaratzetako nahiz dendetako sarrerei, eta baldin eta kalterik eragiten ez badiote horien guztien eguneroko erabilerari, eta inongo hondamenik sortzen ez badute elementu horietan guztietan nahiz erakusleihoetan eta fatxadetan.

Bizikletak ezin izango dira inoiz ere arbolen enborretara lotu.

35. Artikulua. Zirkulazioa

Bizikletak trafikoari buruzko indarreko araudiari loturiko ibilgailuak dira eta, bidegorririk badago, bertatik joan beharko dira, eta egon ezean, berriz, martxaren noranzkoan, galtzadatik, eskuineko erreietik.

- Ezingo dira ibili ez espaloietatik, ez ataripeetatik, ez pasealekueetatik, baldin eta hala egin daitekeela seinaleztatuta ez badago.
- Bizikleta-bideetatik ibiliko dira eta, trafiko mistoko oinezkoen zonetan, seinaleztatutako ibilbideetatik.
- Ezin izango dira ibili, arreta galaraz diezaieketen entzumen-aparaturik edo antzekorik belarrietan dituztela.



ZARAUZKO UDALA

- “Tandem” erako bizikletetan izan ezik, gainerakoetan ezin izango da inortxo ere jarrita eraman ez eskulekuan, ez gurpilen tximeletetan, ez eta bizikletaren beste edozein tokitan ere, Ordenantza honetako 37. artikuluan aurreikusitako kasuan ez bada.
- Indarrean dagoen legediak ezarrita bezala, txirrina eta elementu distiratsuak eta argidunak eduki beharko dituzte bizikletek.
- Bizikleta-bideak, gainerako trafikotik eta oinezkoen zonetatik fisikoki bereizita, bizikletan eta patinetan dabiltzanek baino ezin izango dituzte erabili. Zona bakoitzean jarri egingo da baimendutako gehienezko abiadura zenbatekoa den.

36. Artikulua

Alde Zaharreko trafiko mistoko kaleetan bizikletak ibili ahal izango dira, baina ondorengo baldintzak betez gero:

- Dagoen seinaleztapena errespetatu beharko dute.
- Oinezkoei pasatzeko lehentasuna emango diete.
- Oinez dabilen jende kopurua kontuan hartuta, abiadura egokitu eta gehienez ere 10 km/h abiaduran ibiliko dira, eta aglomerazioak sortzen direnean ondorengo puntuan zehaztutako segurtasun-distantzia gorde ezin badute, bizikletatik jaitsiko dira.
- Oinezko bati aurreratzean edo oinezko batekin gurutzatzean, metro beteko segurtasun-distantzia gorde beharko dute.
- Oinezkoen segurtasunari eragin diezaiokeen mugimendu arduragabekorik edo ausartegirik ezingo dute egin.
- Bizikletaz ibiltzeko zonak dauden kaleetan, hala ibiltzeko seinaleztatutako zonetatik ibili beharko dira.
- Zazpi urtetik beherakoak, adin nagusiko pertsonaren baten kargura badaude, bizikletaz joan ahalko dira espaloietatik, betiere oinezkoen paso berera eta horiei enbarazurik egin gabe.

37. Artikulua

Bizikletak eta trizikloak garraio modura erabili ahalko dira ondorengo baldintzak beteta:



ZARAUZKO UDALA

- a) Bizikleta-bideetan, trafiko mistoko oinezkoen zonetan seinaleztatutako ibilbideetan, edo abiadura-muga 30 km/h duten zonetan, era guztietako fardelak nahiz haurrak garraiatzeko erremolkea edo erdi-atoia herrestan eraman ahalko dute bizikletek, behar bezala seinaleztatuta, bai egunez bai gauez, behar bezala ziurtatutako edo homologatutako gailuetan, eta gailu horiek ezarritako gehienezko pisua errespetatuz.
- b) Gidaria adinez nagusia bada, zazpi urte bitarteko haurra eraman ahal izango du bizikletari lotutako aulkian. Aulkia behar bezala egiaztatuta eta homologatuta egon beharko da, eta ezartzen duen gehienezko pisua errespetatu egin beharko da.
- c) Pertsonak edo merkantziak garraiatzeko egokitutako trizikloek bizikletentzako baldintza berberak bete beharko dituzte.

38. Artikulua. Bizikleten erregistroa

Udalak bizikleten erregistro bat sortuko du eta izen-ematea borondatezkoa izango da. Horrekin, bizikleten lapurretak eta galerak saihestu eta bilaketa erraztu nahi da. Udaltzaingoak kudeatuko du erregistro hori.

Bertan, serie-zenbakia duten bizikletak edo egoki eta eraginkortzat jotzen den beste sistemaren bat dutenak baino ezin izango dira erregistratu.

Hamalau urtetik gorako pertsonak erregistratu ahalko dituzte bizikletak. Horretarako, honako datuak eman beharko dituzte:

- Jabearen izena eta abizenak.
- Helbidea eta harremanetarako telefonoa.
- Nortasun agiriaren zenbakia.
- Bizikletaren serie-zenbakia.
- Bizikletaren marka, modelo eta kolorea edo argazki bat.
- 2005. urteaz geroztik egindako erosketa bada, erosketaren faktura.

Hamalau urtetik beherako bizikleten kasuan, izen-ematea beren gurasoen edo legezko tutoreen izenean egingo da.

Ibilgailua Erregistroan inskribatzerakoan, bere nagusiak jakinaraz dezake borondatezko aseguramendurik baduen.

Udal organo eskudunaren erabaki edo ebazpen bidez, erregistroaren funtzionamendurako instrukzioak ezarriko dira.

39. Artikulua. Bertan behera utzitako bizikletak

Udal agintaritzak bide publikotik jaso ahal izateko, bertan behera utzitako bizikletatzat hartuko da ondorengo zirkunstantziaren bat betetzen duena:

- Bi gurpilak faltatzea.
- Trakzioko mekanismoa erabiltzeko gauza ez izatea.
- Bi hilabetetik gora aparkatuta egotea, giltzarrapo gabe, pneumatikoetan airerik gabe edo bertan behera lagatako ageriko zantzuak dituela.

IV. KAPITULUA. GURPIL-AULKI MOTORDUNAK

40. Artikulua.

Ibilgailu hauen erabiltzaileek ezaugarri bereziak dituztenez, araubidea egokia izan behar da, izaera bereziko, erabiltzaileari eta bereziki ibilgailuari erantzungo diona, beste ibilgailu batzuk zirkulatu eta ibil ez daitezkeen tokietan zirkulatzeko modua izan dezaten. Dena dela, gidari horiek ere errespetatu egin beharko dituzte zirkulazio-seinaleztapenak, martxaren derrigorrezko noranzkoa (galtzadatik doazenean), eta oinezkoen zona iragaitean, oinezkoen abiadurara egokitu beharko dute beren abiadura.

Oinezkoen zonetan espaloirik ez badago, galtzadatik joango dira.

Galtzadatik doazenean, ezingo dute paraleloan zirkulatu.

Ezingo dute atoian ezer eraman, ez eta beste ibilgailu batzuek eurak atoian eraman ere.

III. TITULUA.- ZEHATZEKO ARAUBIDEA

I. KAPITULUA. ZEHATZEKO PROZEDURA

41. Artikulua.

Ordenantza honetan trafikorako, ibilgailuen zirkulaziorako eta bide-segurtasunerako aurreikusitako xedapenak edo, oro har, trafikoari, ibilgailuen zirkulazioari edo bide-segurtasunari buruz indarrean den araubidea ez betetzeak zehatzeko eskumena Alkatetzak izango du. Egoki baderitzo, eskuordetzan aman ahalko du eskumen hori.

42. Artikulua.

Otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuan, hau da, gai honetako Zehatzeko Prozeduraren Erregelamendua arautzen duenean eta ondoren izan dituen aldaketetan,



ZARAUZKO UDALA

edo Dekretu hori ordezkatzeko duen arauan, aurreikusita dagoen prozedura da izapidetu beharko dena, Ordenantza honetako arauak urratzeagatik jarriko diren zehapenak jartzeko orduan eta, oro har, trafikoari, zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko araudian aurreikusitako arau-haustetan jarriko diren zehapenak jartzeko ere bai.

Ordenantza honetan ezarritakoa urratuz gero, arau-haustea egin duena izango da zuzenean egindakoaren erantzule.

Gertakizunaren erantzukizuna 18 urtetik beherako adin txikiko batena bada, erantzukizun solidarioa guraso, tutore, legezko edo egitezko hartzaile edo zaintzaileena izango da hurrenkera horretan, berek bete beharreko obligazioa baita, adin txikikoei egotzitako arau-hauste administratiboa prebenitzea.

Erantzukizun solidarioa ezarritako isuna ordaintzera mugatuko da, eta agintaritza zehatzaileak gutxitu ahalko du. Arau-hausteak arinak direnean, aurreko paragrafoan adierazitako pertsonen onespina izanda, isunaren ordezkari bestelako neurri hezitzaileak ere hartu ahal izango dira.

43. Artikulua.

Zehatzeko prozedura izapidetzeak ez du zerikusirik izango, aldatutako errealitate fisikoa lehengoratzeko edo nahitaezko betearazpenerako beharrezkoa izanez gero, has litezkeen gainerako prozedurekin.

44. Artikulua.

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteen preskripzio-epea hiru hilabetekoa izango da arau-hauste arinen kasuan, sei hilabetekoa arau-hauste larrietan eta urtebetekoa arau-hauste oso larrietan, gertakizuna izan eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Ordenantza honetan aurreikusitako zehapenen preskripzio-epea urtebetekoa izango da, dagokion zehapena ezartzen dion ebazpena behin betikoa izaten den egunaren biharamunetik kontatuta.

II. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK

45. Artikulua.

Ordenantza honetako arauak hausteak arau-hauste arintzat, larritzat edo oso larritzat joko dira.



ZARAUZKO UDALA

Ordenantza honetako artikuluetan ezarritako arauak hausteak ondorengo artikuluetan berariaz tipifikatu gabe badaude, trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legedian aurreikusitakoaren arabera zehatuko dira, arau-hauste horiek jasota dauden araubideak ezarritako arau-hauste mota aintzat hartuta.

46. Artikulua.

Hauek dira arau-hauste arinak:

- Alde Zaharraren barruan geldialdiak egitea, etxebizitzetara sartzeko guneak oztopatuz eta bira egiteko zonetatik hiru metrora baino gertuago.
- Alde Zaharrean barrena zirkulatzea, ez bada merkantzien zamalanak, baimendutakoak, egiteko.
- Bide publikoan uztea zamalanetarako materialak.
- Zamalanak egitea gehiegizko zarata eta/ edo zikinkeria sortuz.
- Pasabide-lizentziak baimendutako erreserba-zona gaizki seinaleztatzea.
- Bidegorritik ibiltzea.
- Pasabide-lizentziak baimendutako erreserba-zonetara errazago sartzeko behin-behineko elementuak edo elementu mugikorrak ezartzea, horretarako nahitaezkoa den baimenik gabe.
- Patinetan eta antzekoetan ibiltzea oinezkoen abiadurara egokitu gabe edo kirola egiten, horretarako seinaleztatutako zonetatik kanpo.
- 35. artikuluan aurreikusitako zirkulazio-baldintzei kasurik egin gabe ibiltzea bizikletak.
- Bizikletentzako aparkalekuetan, ziklomotoareak edo motozikletak aparkatzea.
- Zamalanak egitea ezarritako zona eta ordutegietatik kanpo, horretarako nahitaezkoa den baimenik gabe. (*1428/03 Legea, 16. art.)
- Gelditzea debekatuta dagoen zonak okupatuz, zamalanak egitea. (*1428/03 Legea, 16. art.)
- Zamalanak egitea ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa oztopatuz. (*1428/03 Legea, 16. art.)
- Pasabidearen titularrak edo berak baimendutako pertsonak ibilgailua erreserba-zonan aparkatzea. (1428/03 Legea, 94.2 f art.)



ZARAUZKO UDALA

- Ibilgailu motordunak aparkatzea espaloietan, bizikleta-bideetan, oinezkoen eta bizikleten pasaguneetan. (1428/03 Legea, 94.2 e art.)
- Gaez bizikletaz ibiltzea ez fokurik ez distiragailurik gabe. (18/2009 Legea, 65.3 eta 65.4 e art.)

47. Artikulua.

Hauek dira arau-hauste larriak:

- Alde Zaharrear barrena zirkulatzea lanegun eta jaiegunetarako ezarritako ordutegitik kanpo.
- Alde Zaharrear barrena zirkulatzea gehieneko abiadura eta/edo oinezkoen lehentasuna errespetatu gabe.
- Alde Zaharrear sartzea bai Baimendutako Gehieneko Pisua 3.500 kg-tik gorakoa duten ibilgailuak, bai eta bi metroko zabalera eta bost metroko luzera baino neurri handiagoa dutenak, horretarako baimenik izan gabe.
- Alde Zaharrear sartzeko baimenaren baldintzak ez betetzea.
- Berariaz seinaleztatutako gunetatik kanpo edo seinaleztatutako guneen sarreran aparkatzea.
- Agintaritza eskudunak zirkulaziorako ezohiko neurriak hartzen dituenean, ezarritako murrizketak ez betetzea.
- Zirkulazio-errea edo aparkaleku-banda okupatzea obrak egiteko eta instalazioak jartzeko, bai eta edukiontziak, hiri-altzariak edo bestelako elementuak ipintzea ere udalerriko bideetan, modu iraunkorrean edo aldi baterako, horretarako udalak eman behar duen baimenik izan gabe.
- Errea edo aparkaleku-banda okupatu ahal izateko baimenaren baldintzak ez betetzea.
- Aparkaleku-erreserbaren lizentziako baldintzak ez betetzea.
- Aparkaleku-erreserbako zonak behar ez bezala seinaleztatzea, mantentzea eta kontserbatzea.
- Garraio publikoaren geltokietan motordun ibilgailuak aparkatzea.
- Erreserbatutako erreietan ibilgailu motordunekin ibiltzea edo 2 minutu baino gutxiagoko geldialdia egitea bertan.



ZARAUZKO UDALA

- Oinezkoen eta ziklisten pasaguneetan, horien lehentasuna ez errespetatzea.
- Ibilgailu motordunek eta bizikletek oinezkoen lehentasuna ez errespetatzea, hala seinaleztatutako zonetan.
- Bizikletaz baimendutako abiaduran baino handiagoan ibiltzea, oinezkoak arriskuan jarritz.
- Seinale informatiboak jartzea, nahitaezkoa den udal baimenik gabe.
- Seinale informatiboak jartzea, baimenaren baldintzak bete gabe.
- Udaltzaingoaren aginduak ez betetzea.
- Udaltzaingoarekin ez kooperatzea edo horiek iraindu eta mehatxatzea.

48. Artikulua.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

- Baimenik gabeko ibilgailu motordunekin ibiltzea espaloietatik, oinezkoentzat baino ez diren zonetatik eta bizikleta-bideetatik.
- Seinaleen edukia aldatzea edo, nahastea eragin, ikuspena edo eraginkortasuna murriztu, bidea erabiltzen dutenak itsutu edo beren arreta galaraz dezaketen elementuak jartzea seinaleon gainean. (1428/03 Legea, 142.3 art.)

III. KAPITULUA. ZEHAPENAK

49. Artikulua.

Arau-hauste arinengatik hirurogei (60) euroko isuna jarriko da.

Arau-hauste larriengatik berrehun (200) euroko isuna jarriko da.

Arau-hauste oso larriengatik bostehun (500) euroko isuna jarriko da.

50. Artikulua.

Zehapenen mailaketa ondorengo irizpideen arabera izango da:

- a) Gertakizunaren larritasuna eta garrantzia.



ZARAUZKO UDALA

- b) Arau-hausleak bere buruarentzat eta bidearen gainerako erabiltzaileentzat sortutako arriskua zenbaterainokoa izan den.
- c) Proporzionaltasuna.

IV. KAPITULUA. KAUTELAZKO NEURRIAK

51. Artikulua.

Trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritzaren agenteek ibilgailua ibilgetu ahalko dute, legeetan eta erregelamenduetan aurreikusitako kasuetan.

Ibilgailua ibilgetzearen ondorioz sortutako gastuak ibilgailuaren titularrak ordaindu beharko ditu eta, kautelazko neurria kendu aurretik, ordaindu egin beharko ditu edo ordaindu egingo dituela bermatu; hala eta guztiz ere, bere burua defendatzeko eskubidea ere izango du eta baita, egindakoaren ardura Administrazioak neurri hori hartzea eragin duen pertsonari jasanarazteko aukera ere.

52. Artikulua.

Alkateak –edo, hala badagokio, eskuordetze edo deskonzentrazio bidez jardungo duen organoak– baimena eman ahal izango die Agintaritzaren izenean trafikoa zaintzen duten agentei, legez ezarritako kasuetan, ondorengo kautelazko neurria har dezaten: ibilgailuak bidetik kentzea eta gordetzeko izendatutako lekura eramatea.

53. Artikulua.

Alkateak –edo, hala badagokio, eskuordetze edo deskonzentrazio bidez jardungo duen organoak– onar dezake trafikoaren arloan egiten diren arau-hauste ohikoen taula bat, bai eta zigor aplikagarriena ere. Dena den, taula horiek modulatu ahalko dira aldibereko zirkunstantzien arabera.”

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza hau indarrean jartzean, Zarauzko Hiri-bideetako Zirkulazioaren eta Erabileraren Zenbait Alderdi arautzekoa den Udal Ordenantzak indarrean jarraituko du, honako Ordenantza honetan aurreikusitako aldaketekin.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Alkatetzak erabakiko du zein baldintzapetan zirkulatu eta aparkatu ahal izango duten Zarautzen hemendik aurrera zirkulazioan sar daitezkeen ibilgailu mota berriek.



ZARAUZKO UDALA

Ibilgailu berri horiek sustraitu eta herriko trafikoaren parte egonkor bilakatzen badira, Ordenantza honetan aldaketak egingo dira.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan aurreikusitako lizentziak eta baimenak emateko prozeduretan, gehieneko epea bukatzen bada berriazko ebazpenik eman gabe, eskatzaileak ulertu ahal izango du eskaera ukatu egin zaiola, administrazioaren isiltasunez, Udalak gerora berriazko ebazpena eman beharko badu ere.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honekin bat etorrita, eta herritar guztiak jakinaren gainean egon daitezen, zerranda orokor bat egingo du Udalak kale, parke, plaza, oinezkoen pasealeku eta bizikleta-bideekin.

Bide edo oinezkoen zona berriak eginez gero, edo daudenen trazadurak eta/edo ezaugarriak nabarmen aldatuz gero, kalifikatu egin beharko dira berriro edo, hala badagokio, dagoen kalifikazioa aztertu, honako ordenantzara behar bezala egokitu daitezen.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Motordun ibilgailuei buruz indarrean dauden ordenantza eta bandoak honako hauek dira:

- Zarauzko hiri-bideetako zirkulazioaren eta erabileraren zenbait alderdi arautzeko ordenantza.
- Zarauzko udalerriko bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendua arautzeko ordenantza.
- Bide publikoko zona batean, garaje eta lokal partikularretara sartzeko edo zamalanak egiteko, erabilera berezia edo aparkatzeko debekua arautzen duen ordenantza.
- Itsasertzeko Pasealekutik eta sarbideetatik motordun eta motor gabeko ibilgailuen joan-etorria eta mahai eta aulkien instalazioa arautzeko bandoa.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean jartzen denean, ondorengo araua indarririk gabe geratuko da:

- Alkatetzaren Bandoa, 2006ko azaroaren 2koa, Zarauzko udalerriko hainbat kaletako sarbideen kontrol-sistema martxan jartzekoa.



ZARAUZKO UDALA

AZKEN XEDAPENA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hamabost egunera jarriko da indarrean Ordenantza hau, eta indarrean jarraituko du, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza hau, hasierako izaeraz, 2009ko maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2009ko maiatzaren 28an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza hau, behin betiko izaeraz, 2009ko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2009ko uztailaren 30an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, Ordenantza honen testu osoa 2009ko abuztuaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (153 zk.) argitaratu zela, eta 2009ko irailaren 4an sartu dela indarrean.

Zarautzen, 2009ko irailaren 4an
Idazkaria



ZARAUZKO UDALA

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza honen aldaketa (46, 47, 48, 49, 52 eta 53. artikulua), hasierako izaeraz, 2010eko uztailaren 28an egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2007ko uztailaren 29an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantzaren aldaketa, behin betiko izaeraz, 2010eko azaroaren 24an egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2010eko azaroaren 25ean
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza honen aldaketaren testu osoa 2010eko abenduaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (235 zk.) argitaratu zela, eta 2010eko abenduaren 30ean sartu dela indarrean.

Zarautzen, 2010eko abenduaren 2an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Ordenantza honen II. eranskineko testua eta plana aldatu zituela Udalbatzarrak, 2011ko apirilaren 27an egindako osoko bilkuran.

Zarautzen, 2011ko maiatzaren 2an
Idazkaria

I ERANSKINA

KONTZEPTUAK ETA DEFINIZIOAK

APARKALEKUA →Ibilgailuak aparkatzeko erreserbatutako tokia edo barrutia.

BIDEA→Ibilgailuen zirkulaziorako eraikitako galtzada.

BIZIKLETA →Gutxienez bi gurpil dituen ibilgailua, pedalei emanda mugimendua atzeko gurpilei transmititzen diena, bi kate-piñoi eta kate baten bitartez. // Bi gurpildun ibilgailua, gainean doan pertsonaren giharren ahaleginagatik soilik mugitzen dena, batez ere pedalen eta biraderen bitartez.

BIZIKLETA-BAZTERBIDEA→Errepideko bazterbidea hartzen duen bizikleta-bidea da, zirkulazioaren noranzkoa duena eta fisikoki segretatuta ez badago ere, bideko marren bidez, kolore eta egituraren bidez, sestra-aldaketa arinen edo beste metodo batzuen bidez bereiztuta dagoena.

BIZIKLETA-BIDEA→Bizikletekin ibiltzeko berariaz egokitutako bidea da. Seinale horizontal eta bertikalak ditu eta horrelako ibilgailuak seguru ibiltzeko behar besteko zabalera du. Bide hauetan bizikletak izango du lehentasuna.

BIZIKLETA-BIDEZIDORRA→Oinezkoak eta bizikletak ibiltzeko bidea da, kale eta errepideetatik bereiztuta dagoena, edo trenbideko plataforma abandonatuetan, lehendik dauden bideetan edo zabalgunek sortu berrietan egiten dena.

BIZIKLETA-ERREI BABESTUA EDO BIZIKLETA-LERRO BABESTUA→Galtzadaren zati bat hartzen duen bizikleta-bidea da, galtzadatik eta ibilgailu motordunen trafikotik bideko marren bidez, mutiloien edo bereizteko edota babesteko beste elementu batzuen bidez fisikoki bereiztuta dagoena. Noranzko bakarrekoa edo noranzko bikoa izan daiteke.

BIZIKLETA-ERREIA EDO BIZIKLETA-LERROA→Galtzadaren zati bat hartzen duen bizikleta-bidea da, galtzadatik eta ibilgailu motordunen trafikotik bereiztuta dagoena, baina ez fisikoki segretatuta, eta zirkulazioaren noranzko bera duena.

BIZIKLETA-ESPALOIA→Oinezkoentzako espaloiaren espazioan ezarritako bizikleta-bidea da. Bizikleten trafikoarekin batera oinezkoen zirkulazioa ezar daiteke, bi modu horietarako seinaleak jarrita; era berean, bizikleten zirkulazioa oinezkoen zirkulaziotik bereiztuta egon daiteke, seinaleen, zoladuran egindako marren edo fisikoki bereizteko edo segregatzeko beste edozein elementuren bidez. Noranzko bakarrekoa edo noranzko bikoa izan daiteke.

BIZIKLETA-PISTA→Galtzadaren eta errepidearen eta espaloiaren paraleloan doan bizikleta-bidea da, trazadura eta plataforma independente dituen, ibilgailu motordunen trafikotik bereiztuta. Noranzko bakarrekoa edo noranzko bikoa izan daiteke.



ZARAUZKO UDALA

ERREIA → Edozein bide publikotan, ibilgailu ilara bakarrak zirkulatu ahal izateko moduan, luzetara dagoen banda bakoitza.

ERRESERBA-ZONA → Kale, espaloi, plaza, parke edo pasealeku baten zati bat, pertsona jakin batzuek nahiz erabilera jakin batzuetarako baino erabiltzen ez dena.

ESPALOIA → Kalearen edo beste bide publiko baten luzetarako aldea, etxeen paramentuaren ondoan dagoena, batzuetan maila berean, beste batzuetan ez, eta batez ere oinezkoak bertatik ibiltzeko dena.

EZINDUEN AUTOMOBILA → 300 kg baino gutxiagoko tara duen automobila, eraikita dagoen moduagatik lautadan 40 km orduko abiadura baino gehiago lortu ezin duena, bereziki proiektatuta eta eraikita dagoena- eta ez besterik gabe egokituta- akats edo ezintasun fisikoren bat duen pertsona batek erabiltzeko.

GELDITU, GELDITZE, GELTOKIA, GELDIALDIA → Ekintza bera // Gelditzen den tokia // Zerbaiten - batez ere karreraren- mugimenduaren azkena // Garraio publikoko ibilgailuak gelditu eta bidaiariak zain egoten diren tokia // Alokairuko ibilgailuak eta taxiak aparkatzeko herri eta hirietan egokitutako tokia
→ Ibilgailua 2 minutu baino gutxiago ibilgetzea, gidaria bertatik atera gabe.

GURPIL-AULKI MOTORDUNA → Motorra eta aldamen banatan gurpilak dituen gurpila, pertsona ezindu bati, bere kabuz, batera eta bestera ibiltzeko aukera ematen diona.

IBILBIDEA → Toki bateraino iristeko egin behar den bidea.

IBILGAILUA → Pertsona edo gauzak garraiatzeko bitartekoa. // Ordenantza honetan aipatutako bide edo lurretatik zirkula dezakeen makina edo tresna.

IBILGAILU MOTORDUNEN TRAFIKOAREKIN PARTEKATUTAKO BIDEA → Hiriko edo hiriarteko bidea da, dituen diseinua eta trafikoaren arautzea kontuan izanda, ibilgailu motordunen portaera eta abiadurak bizikletaren erabilerarekin bateragarriak dituen, espazio partekatuzko erregimenean.

LEHENTASUNA → Gauza batek beste gauza batekiko duen aurretiazkotasuna denboraren nahiz ordenaren aldetik.

MONOPATINA → Gurpil gaineko ohol luze samarra, lurzorua kontra oin batekin eraginda indarra hartu eta irristaka ibiltzekoa.

MOTORRIK GABEKO PATINAK → Oinari egokitutako gailu gurpilduna, zoladura gogor eta uniformeetan irrist eginez joateko.



ZARAUZKO UDALA

MOTOZIKLETA → Bi gurpildun ibilgailu automobila, aulki bat edo bi dituen eta, zenbaitetan, sidekarra.

OINEZKOA → Bide publikoetan barrena oinez doan pertsona. // Honakoak ere oinezkoak dira: ume-kotxea edo gurpil-aulki bat bultzaka edo arrastaka daramatenak, bi gurpileko bizikleta edo ziklomotorea oinez daramatenak, motordun nahi motorrik gabeko gurpildun-aulkian oinezkoen pasora doazen ezinduak.

OINEZKOENTZAT LEHENETSITAKO ZONA → Zona honetan muga batzuk edo erabateko debekua ezarriko zaie ibilgailuei zirkulatu eta aparkatzeko eta, horrekin batera, erasandako zonan zirkulazioak bete beharreko baldintza zehatzak zein diren zehaztuko da.

OINEZKOEN ZONA → Herriko zona bat, oinezkoentzat erreserbatua. // Bidearen zati bat, jaso edo beste modu batera mugatua, oinezkoen zirkulaziorako erreserbatua. Definizio honen barruan sartzen dira espaloia eta pasealekua.

PASABIDEA → Bide publikoetako espaloietan edo espaloien zintarrietan egiten den aldaketa, ibilgailuek lokal eta etxebizitzetarako sarbidea izan dezaten.

PATINA → Oinetakoen zolari egokitutako xafla gurpilduna, zoladura gogor eta oso lauan patinatzen joateko.

TRAFIKO MISTOA → Era ezberdinetako ibilgailu eta oinezkoak batera ibili eta zirkulatu dezaketen tokia.

TRIZIKLOA → Hiru gurpildun ibilgailua, pedalei emanda mugitzen dena.

ZIKLISTA → Bizikletaz dabilen pertsona.

ZIKLOMOTOREA → Zilindrada txikiko motorra eduki eta abiadura handia hartu ezin duen bizikleta.

II. ERANSKINA


OINEZKOENTZAT LEHENETSITAKO KALE ETA PLAZAK

Oinezkoentzako plaza, parke eta kaleen zerrenda - Honekin batera doa planoak

Plazak.- Amatzilili, Aritzatalde, Barren, Belauntzaran, Bertsolarien, Donibane, Erramu Iturri, Gaztainpe, Gereziondo, Gurmendi, Igerain gaina, Iturrilun, Ixpilla, Langako, Lege zaharren enparantza, Merkatu, Munoa, Musika, Pontarlier, Santaiturri, Txakolin.

Parkeak.- Arrosategia, Arrue, Gure ametsa. Iñurritza zelaia, Mutxio, Pilartxo enea, San Frantzisko eliz aurrea, Sanz enea, Torre luzea, Villa Munda, Vista Alegre, Zelai ondo.

Kaleak.- Aldapeta, Amaskar, Amezti, Aresti, Azara, Balea, Bañeru, Bixkonde, Dunetako Pasarela, Elkano kalea (N-634 errepidearen ertzean espaloia/banda), Etxabe Roke, Foruen kalea (Bizkaiatik Erribera zaharrera), Galtzada, Geltoki, Goikosoro, Hondar kalea, Iger, Ipar (Nafarroa eta Zigordia artean), Itsaertza, Kale Nagusi, Kiriki, Klabelinsoro, Kulixka, Laburbidea, Loja zaharra, Lore toki, Madoz, Maria Etxetxiki (zenbakiak 1etik 7ra), Matxixako, Mollarri, Olatarreta, Orape, Patxiku, Sagusoro, Santa Clara, Santa Marina, Sorginmuño (Camping-erako sarreratik ibaiaren bokaleraino), Sorotxiki, Soroberri, Sorginsoro, Trinidad, Txanponsoro.





III. ERANSKINA- BAIMENDUTAKO ORDUTEGIAK (*)

TRINIDADE KALEA			
TALDEA	ORDUTEGIA		
	Astelehenetik ostiralera	Larunbatetan	Igande eta jaiegunetan
Eremuaren barruan, garaje plazak, baimendutako pasabide eta guzti, jabetzan edo alokairuan dituztenak.			
Ohiko hornitzaileak	8:00-11:00 Astearte eta ostegunetan: 15:00- 17:00 ere bai	8:00-11:00	
Entitate edo Erakunde Publikoetako ibilgailu ofizialak eta zerbitzu publikoetara atxikitakoak	00:00-24:00		
Larrialdietako ibilgailuak	00:00-24:00		
Gainontzeko Ibilgailuak			

TRINIDADE KALEA			
TALDEA	ORDUTEGIA		
	Astelehenetik ostiralera	Larunbatetan	Igande eta jaiegunetan
Eremuaren barruan, garaje plazak, baimendutako pasabide eta guzti, jabetzan edo alokairuan dituztenak.	00:00-24:00		
Ohiko hornitzaileak	8:00-11:00 Astearte eta ostegunetan: 15:00- 17:00 ere bai	8:00-11:00	
Entitate edo Erakunde Publikoetako ibilgailu ofizialak eta zerbitzu publikoetara atxikitakoak	00:00-24:00		
Larrialdietako ibilgailuak	00:00-24:00		
Gainontzeko Ibilgailuak			

ZIGORDIA-SALEGI SARRERA, ZIGORDIA/SAN FRANTZISKO SARRERA, SANTA MARINA eta HERRIKOBARRA			
TALDEA	ORDUTEGIA		
	Astelehenetik ostiralera	Larunbatetan	Igande eta jaiegunetan
Eremuaren barruan, garaje plazak, baimendutako pasabide eta guzti, jabetzan edo alokairuan dituztenak.	00:00-24:00		
Ohiko hornitzaileak edo merkataritza beharretarako mantentze lanetarako enpresak. Baimendutako ibilgailuak: kamioiak, furgonetak eta 2 jarlekuko ibilgailu mistoak. Kontrolatutako zonan gehienez: 30 minutu	8:00-11:00	8:00-11:00	Ez
Bertakoak (*) Kontrolatutako zonan gehienez: 30 minutu (**) Sarrerak ordutegitik kanpo: gehienez 20 minutuko egonaldia	8:00-11:00era sarrera mugarik gabe. (*) Ordutegi horretatik kanpo 6 sarrera egiteko baimena hilean, edozein ordutegitan (**). Jai-bezperetan edo ostiraletan 11:00etik aurrera baimenik ez.	8:00-11:00 sarrera mugarik gabe. Ordutegi horretatik kanpo baimenik ez. (*)	Lanegun bezperetan, gaueko 21:00etatik aurrera, bestela sarrera baimenik ez. (**) Egindako sarrerak kontuan izango dira
Entitate edo Erakunde Publikoetako ibilgailu ofizialak eta zerbitzu publikoetara atxikitakoak	00:00-24:00		
Larrialdietako ibilgailuak	00:00-24:00		
Auto-taxiak	00:00-24:00 (Zigordia/ San Frantziskotik ezin izango dute sartu, 8:00etatik 11:00era bitartean izan ezik)		00:00-24:00 (Zigordia/ San Frantziskotik ezin izango dute sartu)
Gainontzeko Ibilgailuak	EZ	EZ	Ez

- Ordutegi horietan salbuespenak onartu ahal izango dira; horretarako, baimena eman aurretik, Udaltzaingoak aldeko txostena egin beharko du.
- Era berean, baimenik gabeko ibilgailuei une jakin batzuetan sartzen utzi ahalko zaie, horretarako behar besteko arrazoiak badaude eta aurretiaz Udaltzaingoaren txostena izanda.

(*) III. ERANSKINA, Alkatetzaren 2014ko abenduaren 22ko 1718 Dekretuaren bidez onartua.